

Donostian, 2003ko abenduaren 15ean

Lagun maiteak:

Jakingo duzuen moduan, Elizasu Plaza Berrurbanizatu eta bertan Parking bat Eraikitzeke gaiarekin loturik, Udalak bi bilera-dei egin ditu aurtan. Bertara, bai eragindako higiezinetakoko bizilagunak eta bai Garapen Komunitariorako Planaren Elkarteak gonbidatuak izan dira, proiektua azaldu eta dauden iritzi desberdinak jaso asmoz.

Gaur, eta behin betiko erabakia hartu aurretik, Alkategoak Altzako Garapen komunitarioko esparruan ari diren entidade desberdinen iritziak jasotzea eskatu digu.

Garapen Komunitariorako Planaren helburua elkarren arteko topagune eta taldegintza izanik, ekarpenak bateratzen ahalegintzeko aukera on eta zehatz bat izango delakoan lan egiteko modu bat proposatu dugu. Proiektuari buruz, Altzak dituen iritzi desberdinak -arrazoituak noski- jasoko ditugu Alkatetzara bideratuko den txosten batean, prozesoa parte hartzen duten bai pertsona bai entidade guztiei, erabakia azaltzeko konpromezua Udalak gain harturik.

Horrelako lan-dinamika bat abian jartzeko funtsezkoa da informazioa, eta horrexegatik, gutun honekin batera, dokumentu bat bidaltzen zaizue, Elizasun Parking bat eraikitzen hasteko Udalak dituen arrazoen inguruan hainbat alderdi garrantzitsu jorratzen dituen.

Dokumentu hori irakurri eta Elkarte barruan landu ondoren, bilera bat egiteko proposamena egiten dizuegu, gai hori aztertzeko eta zuen iritziak jasotzeko, horren aldeko nahiz kontrako argudioak azalduz. Horretarako egun egokia iruditzen zaigu 2004ko urtarrilaren 22a. Lehen aipatu dugun bezala, azaldutako informazio hori dokumentu batean gauzatuko da, eta horren helburua, hain zuzen ere, Altzako bizilagunen iritziak jaso eta Udalari helaraztea izango da.



Diagnostikoaren Txostena izenekoan adierazi zen moduan, Altzan aparkatzeko leku-falta handi samarra dago, eta arazo orokor honen aurrean egingo dugun gogoetan irtenbide partikularrez gain, erantzun orokor bat

eman behar dugu ere. Honako hau herritar guztiekiko erantzukizuneko jokabide bat bezela hartu beharko genuke.

Gogoeta horretarako beharrezkoa da gai hori eztabaida zabalago baten barruan sartzea, hau da, Altzako Ibilerraztasun eta Oztupo Arkitektonikoen gaiaren barruan bildu beharko litzateke, eta jakina, bizilagun bakoitzaren bizi-kalitatea hobetzeko moduak bilatzearekin loturik betiere.

Lanerako proposamen honek jarrerak hurbiltzeko dinamika berri horretan jarraitzeko aukera ezin hobea ematen digula uste dugu. Lan-metodo hau egituratuz eta seriotasunez eta zorroztasunez eginez, herritarren partaidetzari behin betiko bultzada emateko aukera dugu eta landutako proposamenak kontuan izateko modua izan daiteke. Gai gehiago ere izango dira eta hainbat hausnarketa ere berriro mahai gainean jarriko dira, eta beraz, beharrezkoa izango da errespetuz, elkar aintzatetsiz eta, jakina, aurkeztutako argudioekiko begirunea izanik lanari ekitea.

Ezinbestekoa da lanerako metodologia bat eraikitzea, edukiak lantzeko eta argudioak biltzeko aukera emango duena, horrela lortuko baitugu egindako lana kontuan hartzea eta herritarren partaidetza indartzea.

Nolanahi ere, lerro hauek aprobetxatu nahi genituzke Ibilerraztasuna gaiarekin lotuta dagoen beste proposamen bat jaso dugula adierazteko; Altza inguru horretako buruz erreflexio orokor bat bultzatzeko beharra. Aurrerago mintzatuko gara horretaz eta bileraren bat egiteko deialdia ere egingo dizuegu, baina edonola ere, ez da otsaila amaitu aurretik izango.

Aurkeztu dizuegun gai horretaz gain, Garapen Komunitariorako Plana, zuetako askok jakingo duzuen moduan, Planaren Batzordea izendatu dugun horretan ari da lanean. Gai horrek bere abiada darama eta laster izango dugu elkarren berri.

Beraz, eta gutun honi amaiera emateko, 2004ko urtarrilaren 22an Casares Kultur Etxean arratsaldeko 19:30ean egingo den bilerarako deia egiten dizuegu, Elizasu Plaza Berrurbanizatu eta bertan Parking bat eraikitzearen inguruan.



Bilerara etortzeko asmorik baduzue, Garapen Komunitarioko bulegora deitu edo e-mailez idatzi urtarrilak 15 baino lehenago. Bilerara azaltzea ezinezkoa baduzue, aipatutako bulegora zuen iritzia bidal dezakezue.

Altzako Garapen komunitario Plana

Altzako Alkateordetza z/g

Tel : 943 35 00 08/ 943 35 00 16

e-maila: altza_con@donostia.org

Besterik gabe, Altzako komunitatearentzat garrantzia duen gaia honetan zuen partehartzea izango dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Altzako Garapen Komunitariorako Plana

Elisabet Arrieta

Arantxa Ferreras

Mar Mar Jiménez



Plan de Desarrollo Comunitario de Altza
Reunión 22 enero de 2004, de 19:30 a 21 h.
Casa de Cultura Casares

Objetivo de la reunión:

Recoger la opinión de las entidades que participan en el Plan Comunitario sobre el proyecto de parking y urbanización de la plaza en Elizasu.

Orden del día:

- 19:30 Presentación
- 19:35 Preguntas e intervenciones complementarias de la información facilitada
- 19:50 Ronda de intervenciones exponiendo las distintas posturas sobre el tema
- 20:10 Trabajo en pequeños grupos
- 20:30 Exposición de las ideas elaboradas en los grupos
- 20:45 Elaboración de conclusiones

Coordina y modera la reunión:

Equipo técnico del Plan de Desarrollo Comunitario

Asisten:

Técnica de Barrios y Participación Ciudadana

Director del Departamento de Proyectos y Obras

